


noaua

**Maddi Egizabal,
Txileko eztanda
sozialaren lekuko zuzena**

**Xua eta gainerako
haur motxiladunen
aldeko ekitaldia**

**Irriu abesbatza,
kide berrien bila**



Ione Iruretagoiena, moda diseinatzailea:

**“Marka propioarekin
duela urtebete hasi nintzen lanean”**

PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industria serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



Noruegako Fiordoak
(kruzeroa)

BIDAIAK TALDEAN

DENBORALDI AURRERAPENA

Eslovenia & Istria

NOAOA BIDAIAK

LASARTE ORIAK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13 info@noaoa.eus **noaoa.eus**



Opariak eta barruko landareak

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

2019-2020 Ikasturtea

Matrikula epea zabalik

- **HEZKUNTZA OROKORRA** (Oinarrizko kultur formakuntza: Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, idazketa. Kalkuluan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)
- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**
- **IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA ATZERRIRA**

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalarte.eus

Albistea iruditan

Miguel Indurainen eskutik ireki zuen Saizar Sagardotegiak 2020ko txotx denboraldia

Urte berriarekin batera hasi da sagardotegietako erromesaldia. Sagardo berria txotxetik dastatzeari ekin zioten ostiral iluntzean Saizarren. Urtero aurpegi ezagun bat gonbidatzen dute txotx irekierari ekiteko; aurtengoan, Miguel Indurain txirrindulari ohiak izan zuen sagardotegi garaia abiarazteko oho-rea.

Azken urteotako ohiturari jarraiki, Julian Iantzik aurkeztu zuen ekitaldian aureskua dantzatu zioten eta lehen sagardo tragoa txotxetik zerbitzatuta, Indurainek edalontzia altxata “hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!” adieraziz estreinatu zuen Saizarrek 2020ko txotx denboraldi berria.



Urtero aurpegi ezagun bat gonbidatzen dute txotx irekiera egiteko. Aurten Miguel Indurainek zabaldu du sagardotegi garaia.

Laburrean

“Dantza”, Inauteri Festarako mozorroa

Gogoan izan, “Dantza” dugu otsailaren 22an ospatuko den Inauteri Festan moztzeko gaia. Jaialdiari buruzko xehetasun gehiago hurrengo asteetan eskainiko ditugu.

Joxan Artzeren omenez

Urtarrilaren 17ra arte hitz batzuk eskaintzeko aukera duzue udal liburutegian ipini duten liburuan. “Idatzi txiki bat, poema bat... Bihotzetik ateratzen zaigun hori idatzi ahal izango dugu bertan”.

Datorren astean, kantu-jira

2020ko lehen kantu-jira izango da. Herriar orok har dezake parte. “Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera”, hori duzue Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen mezua.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

2020an ere bidegabekeriak albiste

2019ko egutegiari kendu beharreko orriak kendu, edo zirriboratu beharreko egunak zirriboratu ditugu. Joan zaigu, berria etorri da baita. Zaharrak berri ote dakartza 2020ak? Herri honetan beti kontatzeko zerbait badela dioen bat baino gehiago dago. Eta ez zaio arrazoirik falta.

Urte berriak ere ekarriko digu ziur, nabarmendu beharreko albiste bat baino gehiago. Batetik finakoak eta urtean zehar barreiatuak izango ditugun ospakizun nahiz aldarrikapen egunak; tartean ez ahaztu, Euskaraldi urtea izango dugu 2020a. Bigarren edizioa lantzen hasia da herriarren batzordea. Denetarikoa entitateak (erakundeak, elkar-teak, eragileak, taldeak...)

inplikarazi nahi dituzte, euskara oraingoan modu kolektiboagoan ahotan hartzea sustatu nahi duen ekimenean. Ahobizi eta Belarriprestekin batera, aipatu guneotan elkartzen den jendartea Ariguneetan bildu eta euskara ahotan hartzen ikusi eta entzungo dugu urte amaieran.

Baina zalantza izpirik gabe, udalerrri honen muetatik kanpo oihartzuna izan duten bi gai pil-pilean izango ditugu, bereziki urteko lehen hiruhileko honetan. Batetik, Xua gurasoekin etxeratzeko aldarria; igandean beteko ditu 3 urte eta azken orduko ezusterik ez bada, aspaldi kalean behar izan arren, gugandik 600 kilometrorra urrundua dituzten guraso Olatz eta Patxiengandik bereziko dute. Guraso bat edo biak

espetxean urrundua dituen ehunetik gorako 18 urtez azpikoen motxiladun hurren kolektibora batuko da Xua. Aipatzekoa, orain arte errealtate hau plazaratu eta familia honek bizi duen bidegabekeria plazaratzeko "Xua Gurasoekin Etxera" herri ekimenak eginiko lanketa.

Herri honi bete-betea eragin eta Gipuzkoan nahiz hortik kanpo ere, oihartzuna izan duen beste bidegabekeria baten lekuko izan gaitezke aurreten, ezustekorik ez bada. Urte amaieratik kea darion erraustegia, ofizialtasun osoz eta ehuneko ehunean martxan ikusi ahalko dugu. Martxoaren 3tik aurrera diotenez. Fase berri bat ezagutuko dugu, 20 urtetik gora herri honetako eta Gipuzkoako milaka herritar kalera aterarazi dituen burugabekeria hau

geratzeko borroka. Aspalidanik leihotatik begi bistakoa da azpiegitura, eta ohikoa bilakatzen ari da orain, edozein uneetan ke zutabeen bueltan ikustea. Esanak esan, ezin jakin zertan ari diren barruan. Baina begi bistakoa kanporatzen ari direna.

Aurrez bidegabeak ziren herri honetako zenbait errealtate bidegabeago bihurtzen ikusi ditugu agurtu berri dugun urtean, eta hasi dugun 2020an ere are bidegabeago bilakatu diren itxura dute. Gaion bueltan lerrootan eman nahi genukeen albiste argi dago zein den noski; momentuz emateko modurik izango ez duguna, baina sarritan nekatu gabe exijitzen segi beharko duguna, bidegabekeriaren behin betiko amaiera.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Itxaso Orbegozo

Droga-trafikoagatik atxilotua

"Substantzia estupefazianteekin trafikatzeari" egotzita pertsona bat atxilotu zuen Ertzaintzak urtarrilaren 7an Usurbilen. Co-reoseko bulegoan bi paketeri zerien usainaren ondorioz, postetxeko langileek Ertzaintzara deitu zuten eta Ertzaintza inguruan zaintza lanak egiten hasi zen. Postetxera furgoneta batean heldutako bikote bat, bi

paketeak hartu, furgonetara itzuli eta abiatzera zihoazenean geldiarazi zuten ertzainek. Bi lagunak identifikatu zituen.

600 gramo guztira

Ertzainek susmagarritzat jo zutenari bi paketeak zabalteko eskatu zioten. "Barruan hainbat marihuana-kukulu, guztira 600 bat gramo, bi

lanpara eta landareak hazteko beste hainbat elementu zeuden". Egoera honen aurrean, ertzainek 34 urteko gizonetako atxilotu zuten, "substantzia estupefazianteekin trafikatzeari leporatuta. Atxilotua polizia-egoitzara eraman zuten beharrezko izapideak egitera, jarraian epailearen aurrera eramateko".

Atxegaldeko Jai

Batzordearen bilera

Jai Batzordea errelebo beharrean da, horren baitan dago Atxegaldeko festen etorkizuna. Jai Batzordeko kide izan eta Atxegalde festa giroan murgiltzen lagundu nahi dutenentzako bilera irekia deitu dute, urtarrilaren 23an arratsaldeko 19:00etan, festetako txosna kokatu ohi duten lekuan.

Ika-mika

Zuberoako Ikastolen aldeko kanpaina arrakastatsua

Lehenik eta behin, eskerak eman nahi genizkioke parte hartu duten herritar guztiei. Herritarren ekarpenik gabe ez genuelako honelako emaitzarik lortuko.

Aurtengoan, 1.600 saski saldu dira Euskal Herri osoan. Gure herriko datuetara etorrira, salmenta handia izan dela garbi geratu da. Usurbilen, 330 saski saldu dira (horietatik 231 Ahux-

ki saskia eta 99 Irati saskia). Gauzak horrela, 14.380 euro lortu dira aurtengo kanpainarekin.

Besterik gabe, jarrai dezagun guztion artean Zube-

roako ikastolak eta bertako ekoizle txikiak sostengatzen. Hurrengo elkartasun kanpainara arte!!

Nafartarrak kultur taldea

Ika-mika

Aurrera Gttunk

Dagoeneko krisi sistemiko batean bizi gara, larrialdi-klimatikoan islatzen dena, krisi-ekonomikoa, larrialdi-demografiko euskalduna, kultura patriarkalaren krisia bere indarkeria matxista patologikoarekin... Gaur egungo zibilizazio patriarkalaren oinarri eragiten dien krisia.

Azaroaren 4an gauzatutako jardunaldian, Antonio Aretxabala geologoak krisi energetikoaren dimentsioaren berri eman zigun (edo petrolioaren gailurra), eta iragarri zigun agian beste 10 urte geratzen zaizkigula tsunami eran datorrenari aurre egiteko.

Jardunaldi hauetara etorri behar zirenak, erabaki politikoak hartzeko ardurak dituztenak, ez ziren etorri, ez zen haiek etor-

teza espero ere. Urteak galdu ditugu petrolioaren gailurrekin edo krisi-energetikoaren konturakin. Urteak dira beste bide bati ekin behar geniola petrolioaren gailurak dakartzan ondorioen aurrean prest egoteko, baina ez zen egin nahi izan. Antonio Aretxabalak esan zigun, agian, beste 10 urte geratzen zaizkigula prestatzeko eta babesteko.

Usurbilgo herria babesik gabe dago, babes politikoa zurzutasun egoera batean, herritarrentzat hil edo bizikoak diren gaien inguruan; hala nola, krisi energetikoaren ondorioak edo petrolioaren gailurra. Politikoki desestrukturatutako herri bat da. Politikoki desegituratutako udalerrria da Usurbil. Polla Recordsen kantuek indarrean jarraitzen du: "Politikari eroek

masak gidatzen dituzte, eta horiek beren begiak ematen dizkiete gertatzen dena ez ikusteko". Horregatik eta hurrengo belaunaldiei begira, beharrezkoa da jende xumeak, erabaki politikoak hartzerakoan, erabaki politikoak hartzeko garaian, berriz ere agintea berreskuratzea.

Azken asteotan gai honi buruz antolatu ditugun jardunaldietara gerturazterik ezin izan duenak, hemen salatutako egoeraren larritasuna ezagutu eta epaitu nahi badu, Aitor Iruzkietaren "La cruda realidad" dokumental-ikua ikus dezake Youtuben.

Alerta sozial handieneko egoeran gaude. Egoera honen aurrean beharrezkoa da herri mugimendu bat artikulatzea, gure aiton-amonek martxan jarri zutenaren antzekoa, euskara

babesteko ikastolak martxan jartzeko beharra sentitu zuten.

Euskal Herriko historiak erakusten digu, unerik zailenetan, herriaren borondatea izan dela arazoak gainditzea ahalbidetu duena. Hurrengo belaunaldiei begira, depresio soziala edota desilusio politikoa onartu ezin ditugun luxuak dira.

Gainera datorkigun krisi energetikoaren aurrean prestatu ahal izateko, ezinbestekoa da Usurbilen subiranotasun energetiko eta elikagaien subirautza proiektuak abiaraztea. Herri-antolamendu bat artikulatu beharra dago eta horren erreferente gisa Gttunk proiektua har daiteke. Aurrera Gttunk.

Gabriel Valin

Ika-mika

Pentsio publiko duin batzuen alde

Datorren urtarrilaren 15ean bi urte beteko dira gure mobilizazioak hasi genituela. Egun horretatik aurrera, astelehenero, 13 bat mila pentsiodunek okupatzen ditugu Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako herrietako plazak, dozena bat manifestazio jendetsu egin ditugu eta, hala ere, oraindik ez ditugu gure helburuak lortu.

Kaleetan mantendu dugun presioaren bidez, pentsioak alderdien agenda politikoan sartzea erdietsi dugu, eta halaber, pentsioak 2018 eta 2019 urteetarako Kontsumo Prezioaren Indizean (KPI) izandako varia-

zioaren arabera birbaloratzea lortu dugu; 2023ko urtarrilaren 1 arte atzeratzea Iraunkortasun Faktorea eta alargun pentsioen zenbatekoa kalkulatzeko, dagokion oinarri arautzaileari %60ko portzentajea aplikatuz.

Pentsiodunok ondo baloratzen ditugu gure mobilizazioen fruitu diren lorpen txiki hauek, baina ez dira nahikoa inondik ere, zeren eta bai baitaude duintasunez bizi ahal izateko oso garrantzitsuak diren beste aldarrikapen batzuk, eta horregatik era irmo eta iraunkorrean jarraituko dugu udaletxeen aurrean astero kontzentrazioak egiten.

Gure aldarrikapenen bidezko-

tasuna defendatuko dugu, bate-re etsi gabe: benetako KPI, 1080 euroko gutxieneko pentsioa, Lanbitarteko Gutxieneko Soldata, Lan erreformen eta 2011 eta 2013ko pentsioen indargabetzea eta soldata eta pentsioetan genero arrakala desagertzea.

Denok dakigu orain arteko lorpenak mobilizazioen bidez erdietsiak izan direla, baina esperientziaz badakigu behin lortutakoak, botere politikoa eta finantzarioek ezabatu egiten dituztela, gure borrokan zehar lortutakoekin gertatu izan den bezala, eta beraz, gaur kalean borrokan ari bagara lehenago usurpatu egin dizkigutelako da.

Urtean zehar adierazi bezala, gure pentsioen eta ondorengoen alde ari gara borroka egiten eta horrexegatik errepikatzen dugu soldata eta pentsioen asoziazioa, eta honela, langileak, gazteak, feministak, denok bildu behar gara urtarrilaren 30eko mobilizazio handian, sindikatuek greba orokorrera egin duten deiarekin batera, guk ere pentsiodunak garen aldetik babesten dugulako pentsioen sistema publikoaren defentsa.

Nornahik gobernatu, pentsioak defendatuko ditugu.

Pentsiodunak aurrera.

AEPB-APAE

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Maddi Egizabal, Txileko eztanda sozialaren lekuko zuzena

Pasa den urtea “nire bizitzako urte onena izan da zalantzarik gabe”, adierazi dio NOAUA!ri eskaini dion elkarrizketan Maddi Egizabalek. Munduan barrena ibilia da. Afrikan lehenbizi; Ugandako herri txiki batean bi astez bertako komunitatean laguntzen; bereziki haur eta emakumeekin, bertako eskolako proiektuan lanean... “Ikusi nuen argi bat bertako jendeak, haurrek transmititu zidatena. Ordutik ia egunero oroitzen naiz haietaz eta goz nago berriz hara joateko”, adierazi digu Maddik.

Afrikan hasitako proiektura soilik ez. Sei hilabetez bizitzen egon den Hego Ameriketara ere bidaiatu nahi luke berriz, “itzulerarik gabeko txartelik gabe”, azken urte erdian bertan jorratu duen bideari segida emateko, “ezagutzen jarraitzeko, emakume eta haurrekin hezkuntzaren alorrean lan egiteko”.

Hezitzaile izateko ikasketak burutzen ari den gazteak itsasoz bestaldeko errealitatea hurbilagoatik ezagutzeko aukera izan du beka bati esker, ikaskide talde batekin batera;



Hezitzaile gisa praktikak egitea egokitu zitzaionean, Txileko errealitate gordinarean lekuko zuzenean bilakatu zen.

MUNDUAN BARRENA

Maddi Egizabalek, hezitzaile izateko ikasketak burutzen ari den gazteak, Ugandako eta Txileko errealitateak hurbilagoatik ezagutzeko aukera izan du beka bati esker

Bolivia, Peru, Kolonbia eta Txile.

Bizi egoera gogorak

Beka deialdiari esker egonaldi egiteko herrialdean (Txile)

len) bizitzen hasi zirenean, inguru zoragarriak ezagutzeko aukera izan zuten. Baina une oro “txanponaren bi aldeak ikusten genituen, alde zoragarria eta gogorra. Nola liteke halako aberastasun natural eta pertsonala duen herrialdean jendea hala bizitzea?”, galdeztzen du Egizabalek. Hezitzaile gisa praktikak egitea egokitu zitzaionean errealitate gordin honen lekuko zuzenean bilakatu ziren. Haur eta emakumeen eskubide urraketa larriaz ohartarazi zituen aurrean zuten panoramak. “Beraien espazioak partekatzean indarkeria, egoera oso gogorak bizitzea

egokitu zitzaigun”. Haurren pobrezia ikaragarria ezagutu zuten, “umeak kalean eskatzen”.

“Bagenekien Txile oso elitista zela”

Antofagasta, Txile iparraldeko kostaldeko hiriburua izan du bizilekua Maddik. Hango unibertsitatearen bidez praktikaldia egin ahal izan zuten eskoletan, eta aurrez zekitena berretsi ahal izan zuten. “Bagenekien Txile oso elitista zela, hezkuntza sisteman ezberdintasun sozialak oso argi islatzen zirela”. Eskema zahar asko indarrean dituztela aipatzen digu Maddik. “Umeei errieta egitea uniforme eraman ez dutelako, ezin dutenean ordaindu. Edo guri uniforme eramatera derrigortzea, piercing eta tatuaiak kentzera”.

Maddiri lan egitea egokitu zitzaion eskola publikoan, 6-7 urteko 40 ume zeuden. “15ek behar oso bereziak zituzten. Batzuk lehen orduetan ez ziren etortzen. Nabari zen ez zetozele leku oso egonkor eta seguru batetik. Ume hauen barrura iristea oso interesgarria izan zen. Heldu askok bizi gabeko esperientziak zituzten”.

“Txile esnatu zen”

Eskuzabalik hartu zituzten Txilen Maddi eta ikaskideak. “Etxean bezala sentiarazi gintuzten”. Bertako jendearekin hartuemanetan jabetzen ziren “itota bizi zirela, baina itolarri hori inoiz ez zuten transmititzen”. Argi esan dio NOAUA!ri, “ez nuen irudikatuko halako eztanda bat gertatuko zenik”. Ezta hain hurbiletik biziko zutenik ere.

Urriaren 18an izan zen, bat-batean. “Ohiko larunbat bat zen. Santiagotik (Txileko hiriburua nagusitik) metroko gazte batzuk balen perdigoekin zaurituak zirela erakusten zuten irudiak jasotzen hasi ginen”, kontatu digu Egizabalek. Hortxe lehertu zen ordura arte ziurrenik hango gizartean isilpean zen ezinegon eta haserrea. Gazteok antza,

metroko prezioaren garestitzea salatze ordaindu gabe sartu ziren bertara, protesta moduan. Jasan zuten polizia errepresioa bortitza izan zen. “Errepresio hark jendea haserrarazi eta kalera ateratzea eragin zuen”, dio Usurbilgo gazteak.

Plaza publikora irteteko arrazoiak antzak ziren Maddiren esanetan. “Bakoitza bera

ukitzen zuen gaietatik hasi zen protestatzen”. Politikarie-kiko deskonfiantza, erreforma txikiekin konformatzen ez zen gizartea, eskubide anitzen urraketak... Gazteon arbasoek Pinochet diktaduraren eraginez, barruraino sartua zuten izua kanporatu zuen belaunaldi berriak. “Txile esnatu zela zen protesta haien aldarria”, Maddik kontatu digunez.

Etxean “giltzapetuak”

Santiago gertatzen ari zena hurbiletik segitzen ari ziren Maddi eta lagunak Antofagastatik. “Inpotentzia handiz. Negar eragiteko gasa botatzen, adinekoak korrika, tiroak... Mobilizazioak hastarekin batera heldu zen errepresio latza”.

Gau hartan kalera atera ziren baina “ez ateratzeko esan ziguten”. Eta egoki aholkatu zieten; biharamunean “etxeratze-agindua” ezarri zuten. “Bat batean esaten digute militarrek atera dituztela kalera, ordu tarte batean ezin zarela atera kalera, eta ateratzen bazara nahi dutena egin dezaketela zurekin”. Horrekin batera, oinarritzko elikagaien hornikuntza falta arrisku bilakatu zitzaizen, “bakoitzak despentsa azkar betetzeko esan zen. Presidenteak berak gerran ginela zioen. Supermerkatuetara jaitsi eta ilara handiak”.

Estuasun gehien sortzen ziena, “zer gerta zitekeen ez



istiluen lehen lau egunetan, “dena gelditu zen. Giltzapetuak ginen etxean”. Ezkerrean da Maddi Egizabal.

MADDI EGIZABAL

“Manifestazio baketsuenak ere erreprimituak izan ziren. Haien bizitza egunero jokatzeko ari ziren. 200 begi baino gehiago mutilatu zituzten”

jakitea zen. Lehen gauean, mentalki oso ondo nengoen, baina nire gorputzak tentsioa, urduritasuna, dardara islatzen zituen. Gogoan dut jendea kazerolak jotzen”.

Estatuak ezarritako etxeratze-agindu hark helburu argia zuen Maddiren esanetan; “jendea beldurtu eta etxean sartzea. Baina ez zuten lortu. Gazte eta helduak halere kalera ateratzen ziren borrokatu eta manifestatzera”.

Lehen lau egunetan, “dena gelditu zen. Giltzapetuak ginen etxean, tiroak entzuten, gazteak poliziengandik ihesi korrika, gas toxikoak botatzeko ibilgailuak kalean, denetarik entzuten. Etxetik etengabe se-

gitzen genuen sare sozialetatik militarrek eta polizia egiten ari ziren astakeriak”. Tartean errepresio latzak eragindako desagertuen senideen lekukotzak eta sufrimenduaren berri jaso zuten. “Manifestazio baketsuenak ere erreprimituak izan ziren. Haien bizitza egunero jokatzeko ari ziren. 200 begi baino gehiago mutilatu zituzten”. Tea lagun artean hartzeko mugimendua sare sozialetan sortu zuen neska ere desagertu omen zen. “Asko lantokira joaterakoan familiarengandik agurtzen zen agian ez zela bueltatuko pentsatuz. Eta egia zen, bat baino gehiago ez ziren itzultzen”.

Duintasunez bizi nahi duen herriaren lekukotza Sutegin

Txilen grabatu duten “Sobrevivir” dokumentala urtarriaren 24an 19:00etan ikusi ahaliko dugu Sutegiko auditorioan. Ikus-entzunezko lan honekin, urrian izandako eztanda soziala zerk eragin zuen, eta eztanda hark izandako bilakaera jaso dute irudi eta txiletarregana hurbilduko gaituzten isildutako lekukotzen bidez.

Hiri erdiguneetatik aparteago, “hau guztia auzo baztertuenetan nola bizi izan duten” ere erakutsiko dute, “ahotsik ez dutenei ahotsa emateko aukera” izan baitute.

“Sobrevivir” jarri diote izena dokumentalari, “sobre” hitza zirriboratu dute, bizi hitza nabarmentzeko. “Bizirauten duen herri bat da”, zorpetua, isilik, beldurtua, oinarritzko bizi eskubideak urratuak... dituen herria baita Txile. “Biziraun duen herri batek duintasunez bizitzeko borrokatzen du” eta horixe islatu nahi izan dute ikus-entzunezko lan honetan.

Bizitakoa munduratzeko beharra

Egunak aurrera joan ahala, pixkanaka etxeko itxialdia hausten joan ziren. “Lehen aldiz atera ginenean, Unibertsitateak Erasmuseko ikasleentzat antolaturiko terapia saiora joan ginen, denak ginelako estuasun erreprimituarekin”. Bizitzen ari ziren egoera askatasunez bizitzea erabaki zuten. Unibertsitatean sare batzuk osatu zituzten izen emateko, kalera ateratzen zena “gerora etxera itzultzean ondo zegoela adierazteko”.

Manifestazioetan parte hartzen hasi ziren. “Maskara, bikarbonatoa, limoiak eramatea aholkatu ziguten. Normala babestu beharra izatea. Berdin zitzaizen aurrean zutena amona bat edo haur bat izan. Herri osoa elkartuta ari zen modu



Mobilizazioen lekuko izan ziren Maddi eta Erasmuseko bere kideak. Argazkia: Felipe Marin Araya.

ezberdinetan borrokatzen. Bat batean gasa botatzen zuen ibilgailua agertzen zen eta denak masan korrika beldur handiz”.

Baina zerbait gehiago egiteko beharra sentitu zuten, gertatzen ari zena gobernu eta hedabideak nola manipulatu zuten ikusita. “Gertatzen ari zena munduak jakiteko beharra sentitu genuen. Bertako jendeak gugatik egindakoa es-

kertzeko modu bat zen baita”. Hortik sortu zen orain Sutegira dakarren “Sobrevivir” dokumentalaren sortze prozesua. 34 lekukotza batu zituzten, tartean “poliziagatik jarraituak izan asko”. Mobilizazioak grabatu zituzten. “Beldurra sentitu genuen. Bagenekien asko ari ginela arriskatzeko”. Argi dio, egun haietan “ez zen existitzen lasai eta aseguru egotea”.

Urtarrileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa



ARIES

Urte berrirako asmo on pilo bat duzu, baina ez dituzu zertan denak batera egin beharrik. Hileko aholkua: Izan zaitez zure buruarekin zintzoa: ez baduzu inoiz joan behar, ez atera kiroldegiko bonua!



CANCER

Txotx garaia abentura sasoi izango da zuretzat. Kupeletik kupelera gero eta lagun gehiago egingo dituzu, eta baita balantza gehiago ere. Hileko aholkua: Utzi sagardo pixka bat besteen-tzat!



LIBRA

Kirola egiten hastea ondo dago, baina ezer ez egitetik Irisasi BTT Hotzak Akabatzen lasterketan parte hartzea tarte handi samarra dago. Hileko aholkua: Semearen trizikloak ez du balio horretarako!



CAPRICORNIUS

Kontuz hanka non jartzen duzun, hilabete honetan trakets samar ibiliko zara eta txorkatila okertzeko arrisku handia izango baituzu. Hileko aholkua: Dema-plazan takoiekin ez ibili!



TAURUS

Sobratutako turroi eta polborioak jaten segitzen duzu, baina gauza bat jakin behar duzu: gabonak bukatu dira! Hileko aholkua: Kendu behingoz gabonetako apaingarriak eta hasi danborrada entseatzan!



LEO

Urtarrileko aldapa zaila izango da, baina oraindik zailagoa izaten da Troiakoa igotzea. Diruak erraz ihes egingo dizu, baina gutxienez forman jarriko zara. Hileko aholkua: Atera ezazu txandala armairutik!



SCORPIUS

Aste pare bat zoaz lanean baina dagoeneko apirileko oporrekin ari zara amesten. Beharbada bada ordua errutina alde batera utzi eta betidanik egin nahi duzun hori egiteko. Aholkua: Bidaia agentzia bat ireki eta akabo arazoak!



AQUARIUS

Azkenean ausartuko zara bikoitza aurkitzeko aplikazio horretan izena ematen. Sexua topatuko duzu, baina maitasuna... Baina SEXUA BAI! Hileko aholkua: Ez jarri gezur gehiegirik zure profilean.



GEMINI

Maitasuna aurkituko duzu uste ez duzun toki batean eta hormonak dantzan jarriko zaizkizu. Adi begi urdin horrekin! Hileko gomendioa: Badaezpada ere beti azpiko arropa garbiarekin atera.



VIRGO

Sormena, talde-lana eta zure dohainak sustatzen duen zer-bait egiten hasiko zara. Usurbilgo kantu-jirakoekin abestea ideia ona da, adibidez. Hileko aholkua: Kantatu egin behar da, ez garrasi.



SAGITARIUS

Toki berriak ezagutzeko gogoia izango duzu, baina horretarako ez duzu Txina edo Finlandiara joan beharrik. Hileko aholkua: Arratzaingo paseoak ez dio batera inbidiarik munduko edozein txokori!



PISCIS

Denbora gehiago hartu behar duzu zuretzat: bainu bat hartu kandelen argipean, erriberatik paseo bat eman, Monte Igeldoko *montaña suizan* ibili... Hileko aholkua: Esan denei katarroarekin zaudela eta allakuidaus!

Ahalduntze eskolaren ikastaroak

Bi ikastaro antolatu ditu Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak 2020ko lehen hiruhilabete honetarako Bake Epaitegi atzeko lokalean:

Biodantza ikastaroa:

- Urtarrilak 13 / martxoak 30.
- Astelehenetan, 15:30-17:00 artean.
- Irakaslea: Elen Kortaxarena Gesalaga.
- Izen ematea urtarrilaren 8ra arte.

Maitatu, berdintasunetik

“Amar desde la igualdad: construyendo vínculos afectivos de buen trato”:

- Urtarrilak 16/ apirilak 2.
- Ostegunetan, 17:00-19:00.
- Izen ematea urtarrilaren 14ra arte.

Izen ematea doan:

Parekidetasun Saila: 943377110
parekidetasuna1@usurbil.eus
Oharra: usurbildarrek lehentasuna izango dute.

Euskal Herriko Mus Txapelketa

Euskal Herriko Mus Federazioak antolaturiko Euskal Herriko Mus Txapelketaren edizio berria martxan da. Herriz herriko kanporaketen fasean da. Hemen Usurbil eta Aginagan jokatu diren hitzorduak:

- Urtarrilaren 24an, 22:00etan Aginagako Atarialde Elkarte.
 - Urtarrilaren 31n, 22:00etan Usurbilgo Aitzaga Elkarte.
- Oharra: bi hitzorduotarako



Atarialde eta Aitzaga elkarteetan jokatu dira bi partidak.

izen ematea, 21:30etan zabalduko da.

Informazio gehiago:

ehmus.eus



FINKA ADMINISTRATZAILEA
AHOLKULARITZA ZERBITZUA
INMOBILIARIA
ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

noaua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkidetza: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaua.eus

BAZKIDEEN TXOKOA noaua! euskararen aterpe



hiru saski zozketatuko ditugu
urtarrilaren 30ean

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Xua gurasoekin etxeratzearen alde agertu dira Gipuzkoako Batzar Nagusiak

Xua gurasoengandik ez bereizteko ebazpen proposamena onartu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiak urtarrilaren 8ko hileroko osoko bilkuran. 49 batzarkideetatik 48 alde (EHBildu, EAJ, PSE, Elkarrekin Gipuzkoa) agertu ziren eta 1 aurka (PP).

Ebazpenak jasotzen du “dagokien autoritateei eskatzea behar dituzten neurriak har ditzatela, legedia kontuan hartuz ahal bezain beste bermatzeko adin txikikoa eta bere gurasoen arteko harremana, zaintza eta gertutasuna; familiaren batasuna eurek sustraituta dauden ingurune sozialean lagunduz eta adin txikikoaren interes gorena babestuz”. Horrekin batera, Gipuzkoako Batzar Nagusiak hartutako erabakia urgentziaz Madrilgo Espetxe Zuzendaritzari, zigorren aplikaziorako epaileari eta Espainiako Barne Ministerioari helarazteko konpromisoa hartu zuten.

Elkarrekin Gipuzkoa:
“Pozik hartuko genuke Xua gurasoekin batera hazi eta garatzeko aukera emango dion edozein ebazpen”

Eremu guztietako “araudi guztietan agertzen da adingabe-koaren interes gorena” babestu eta lehenetsi behar zela adierazi zuen Elkarrekin Gipuzkoako batzarkide Maria Valientek, “adin txikikoei eragiten dieten edozein neurri eskatu eta har-tzerakoan”.

Gogorarazi zuenez, Xua-ren gurasoek indarrean den araudiko baldintzak betetzen dituzte “hirugarren gradua aplikatua izateko. Baldintzapeko askatasuna aplikatu beharko litzaieke”. Elkarrekin Gipuzkoak botereen banaketan eta independentzia judizialean sinesten duela azaldu



49 batzarkideetatik 48 (EHBildu, EAJ, PSE, Elkarrekin Gipuzkoa) alde agertu ziren eta 1 aurka (PP).

FORU PROPOSAMENA

“Gipuzkoako Batzar Nagusiak hartutako erabakia Madrilgo Espetxe Zuzendaritzari, zigorren aplikaziorako epaileari eta Espainiako Barne Ministerioari urgentziaz helarazteko konpromisoa hartu zuten”

zuen Valientek. Horregatik zioen, “pozik hartuko genuke Xua gurasoekin batera, pertsona gisa hazi eta garatzeko aukera emango dion edozein ebazpen. Milesker eta animo senide eta lagunei”.

PSE: “Denbora gutxi barru Xuak gurasoengandik gertu jarrai dezala”

PSE-ko batzarkide Arritxu Mañonen esanetan, ETA desagertu ostean ireki den garai politiko eta sozial berrian, “beharrezkoa da espetxe politika berri bat diseinatu eta implementatzea”. Errealitate sozial

berri honi erantzungo diona, “berrezi eta birgizarteratzerara” bideratua egongo dena, pertsonen eskubideak babestuko dituena.

Espetxe politika berriak baldintzapeko askatasuna aplikatzea ahalbidetzearen alde egin zuen, “aurreikusitako baldintzak betetzen badira eta modu indibidualean”. Horrekin batera, espetxe politika berriak espetxealdia presoaren sorterritik gertuko kartzeletan betetzea bideratu behar duela irizten dio PSE-k, urruntzeak presoaren senide eta laguntzat dakartzan kostu eta arriskuak saihesteko. “Xuaren alde kasu honetan. Gainerako haurren haurtzaro berdina eta merezi duen etorkizuna izan dezan. Dena ondo atera dadila, eta denbora gutxi barru Xuak gurasoengandik gertu jarrai dezala”.

EHBildu: “Bide guztiak jorratu behar dira, egoera bidegabe hauek ekiditea nahi badugu”

Igandean (hilak 19) gertatuko dena, “banaketa oso minga-

ria izango da”, adierazi zuen EHBilduren batzarkide Aitor Arantzabalek, baina ekidin daitekeen sufrimendua gogorarazi zuenez, “izan ere espainiar estatuko legedia arrunta aplikatuta, biek baldintzapeko askatasuna lortzeko eskubidea izango lukete”.

Argi galdetu zuen, “Patxik eta Olatzek espetxealdiaren hiru laurdenak ondo baino hobeto beteak dituzte. Beraz nola ez da posible izango Xua bere gurasoekin etxera ekartzea? Borondate kontua dela deritzogu, besterik ez”.

Xua 105 motxiladun haurren kolektiboko kide izatera igaro daiteke igandean. “Bide guztiak jorratu behar dira egoera bidegabe hauek ekiditea nahi badugu” zioen Arantzabalek. Bere esanetan, “salbuespeneko legedia alboratu behar da. Espetxeak husten joateko ibilbide orri bat denon artean eraiki behar dugula deritzogu”. Urrats oso garrantzitsutzat jo zuen gai honen bueltan “ia erabateko adostasuna lortzea”.

“Ez ditzagun sufrimendu berriak sorrarazi”

EAJ: “Xuak bere gurasoekin egoteko aukera izan behar du”

“Patxi Uranga eta Olatz Lasagabasterren kasuan ondo ikusiko genuke legedia arruntaren aplikazioa”, adierazi zuen EAJ-ko batzarkide Ianko Gamboak. Baldintzapeko askatasuna aplikatzea aipatu bi herritarrei, gaineratu zuenez, “ez baitut inoiz sinetsi salbuespenezko legedian, mendekuaren usain mingotsa antzeman izan diot beti”. Horrekin batera, kontuan hartzekoa deritzo, “adin txiki-koaren interes gorena defendatzearen printzipioa, Xuaren interesak defendatzea alegia”. Horregatik uste du EAJk, “justiziaz eta gizatasunez jokatu behar dela. Guztiz errugabea den umeak bere gurasoekin egoteko aukera izan behar du, ahalik eta bizitza normalizatue- na izateko aukera merezi du”.

Baldintzapeko askatasuna aplikatzea zentzuzkotzat jotzen du, “familia honek bizitza berri bat has dezan, Patxi eta Olatzentzat birgizarteratze helburua bete dadin”. Etorkizunari begirako mezu honekin borobildu zuen bere hitzaldia. “Herri honek 40 urte luzez



Xua gurasoekin etxera plataformak bi ekitaldi deitu ditu iganderako. Xehetasun gehiago, orrialde honen azpikaldean.

IANKO GAMBOA, EAJ

“Guztiz errugabea den umeak bere gurasoekin egoteko aukera izan behar du”

iraun duen bortizkeriari behin betiko bukaera ona eman nahi badio eta sufrimendu guztien erreparazioa bidea dela sinesten badugu, ez ditzagun ekidin daitezkeen sufrimendu berriak sortzen utzi”.

PP: “Zergatik izan behar ditu ETAKide batek definiturikoak baino espetze onura gehiago?”

Ebazpen proposamen honen aurka agertu zen bakarria PP-ko batzarkide bakar Juan Carlos Cano izan zen. Hitz gogorak izan zituen Xua eta gurasoentzat. “Olatzen eta Patxiren etika eta moralitasuna gizartearekiko eskatzen duten gizatasun, elkarbizitza eta justiziaz kanpokoak izan da beti”. Bere esanetan, biek erabaki zuten “izango zuten haurren etorkizuna baldintzatzea”.

Ezinbestekotzat jo zuen “aktibitate terrorista” eta “biktimei barkamena eskatzea”, justiziarekin kolaboratzearekin batera. Onartu zuenez, “guztiz

bakarrik nago foro honetan” agerturiko posizionamenduan. Proposatzen zena espetze onurak direla nabarmendu zuen. Hainbat galdera ere planteatu zituen, hitz gogorrekin. “Zergatik izan behar ditu ETAKide batek definiturikoak baino espetze onura gehiago? Zergatik izan behar du gizarteak esku-zabalagoa, beraiek beraien indarkeria printzipioei uko egin nahi ez badiete? Inork pentsatu du nola heziko den alaba hau bi gurasoek bere indarkeria aktibitatea mantenduta, barkamenik eskatu nahi ez dutenean? Adingabeokarekin ze interes goren defendatu nahi dugu? Hori da alaba honentzat defendatuko dugun interes gorena, printzipio beretan heztea?”.

Gainerako alderdiek gogor kritikatu zituzten hitzok. Faltsuak diren baieztapenak ez egitea eskatzearekin batera, bizi dugun errealitate berria ukatzea aurpegiratu zioten Canori. Xuaren interesak lehene- tsi, bera gurasoekin etxeratzearen alde agertu eta mendekuan oinarrituriko diskurtso zaharrak alboratzearen alde egin zuten.

“Une gogorra izango da”

Euskal Telebistaren *Ur Handitan* saioak “emakumea bere bakardadean”, emakumea eta espetxearen gaia jorratzen duen erreportajea eskaini zuen iragan astean. Xuak eta bere guraso Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak bizi duten egoera plazaratu zuen emanaldiak, haien senide eta lagun Mari Karmen eta Ainararen ahotik.

Igandeko bereizketa, une gogorra izango dela azaldu zuen Mari Karmen Anzak. “Urtarrilaren 19an atera behar du baina igandea denez, bisean biseko bisita bat egin dezakegu eta

aita agurtu. 20:00etan amaituko dugu, bertan geratuko gara lotan eta Donostia egunez etorriko gara hona”.

Une gogor honetarako aspaldi hasi zirela prestatzen azaldu zuen Anzak, Xuaren amonak. “Plan bat egin genuen. Haurrak 6 hilabete zituela, egun batzuetan 2 orduz ateratzen hasi zen arratsaldeetan. Pisu bat hartu genuen gero espetxetik gertu umearekin egon ahal izateko. Irteera geroz eta luzeagoak egin ditugu”.

Bidaia luzeak, kezka nagusia
Xua gurasoengandik bereizten

badute, hortik aurrera, gehien kezkatzen diona Anzari, joan etorriak dira. “Bidaia luzea baita, 7-8 ordukoa. Haurrak botaka egin zuen azkenekoz. Kotxean ez zuen sartu nahi, ez zuen aulkian eseri nahi. “Amona askatu!” oihukatzen zuen. Pazientzia handiz, mantso joan beharko dugu”, zioen Anzak. Olatzen aspaldiko lagun min Ainarak ere hitza hartu zuen. “Olatz urduri da, datorenarekin”, aipatu zuen.

Iganderako bi deialdi
Urtarrilak 19, igandea

■ 11:30 “Motxilak gora!” ikus-

kizuna Donostiako Atano pilotalekuan. Sarrerak: 6 euro aurrez, 8 euro egunean bertan. 0-2 urte artekoek doan. Sarre- rarak aurrez sare.eus bidez esku- ra daitezke.

■ 19:00 “Xua Gurasoekin Etxera” aldarriak azken hilabeteotan bildutako atxikimenduak bistartzeko elkarretaratze berezia Eguzkitzako errotondan (Aliprox saltoki ondokoan).

Urtarrilak 31, ostirala

■ 20:00 Euskal preso- en eskubideen aldeko elkarretar- atzea Mikel Laboa plazan.

Irrii abesbatza, kide berrien bila

Herri abesbatza kide berrien bila dabil. Errelebo beharrea dira eta garai batean kide izandakoek kantatzera itzuli nahi badute, edota lagun berriek abesbatza barruan parte hartzen hasi, batzuek zein besteek orain duzue pausoa emateko aukera. Irrii abesbatzako kide izan nahi baduzu deitu 637 208 558 telefono zenbakira (Maria Jesus). Bertan jasoko duzu behar beste agibide.



Irriuko kide izan nahi baduzu deitu 637 208 558 telefono zenbakira.

Artzeri gorazarre

Bi urte sortzaile usurbildarra zendu zenetik eta ondoko argazkiko lore sortak dioen moduan, Joxan Artzek gudan segitzen du. Lore eskaintza hau bere heriotzaren urtemuga egunez egin zioten. Joxanek anaia Jexuxekin batera jotako errezitaldi batzuk ere entzungai izan ziren. Eguntan bestalde, Sutegi udal liburutegian Artzeren sortze lanen bilduma duzue ikusgai eta erregristo liburu bat, idatziz Joxan omendu eta oroitzeko.



Urtarrilaren 12an egin zioten lore eskaintza, "Ikimilikiliklik" eskulturaren.

Danbor hotsak ikastetxeetan

Kantuan eman zioten ongi etorria neguari, eta orain negu batean sartuta, ospakizun gehiagoren atarian dira ikastetxeak. Hasteko, danbor hotsak nagusituko dira eguntan Udarregi Ikastolan, Zubietako eta Aginagako Eskoletan. Otsailean Santa Ageda bezperako hitzorduak eta inauteriak!

Neguko ospakizunak ikastetxeetan

Urtarrilak 17, ostirala

15:45-16:00 Zubietako Eskolako ikasleen danborrada saioa frontoian.

16:00 Udarregi Ikastolako HH eta LH-ko ikasleen danborrada saioa Agerialdeko patioan.

Urtarrilak 20, astelehena

15:30 Aginagako Eskolako danborrada saioa eskolan.

Otsailak 4, asteartea

Santa Ageda bezperako ospakizunak ikastetxeetan.

Otsailak 21, ostirala

Inauteri jaia ikastetxeetan.

Gure Eskuren Tripontzia, dirutza zozketatzeaz

94.000 euro saritan zozketatuko du Gure Eskuk, urtarrilaren 20an ospatuko duen zozketarekin. Txartelak Atxega Jauregian, Aitzagan, Zubietako Alamandegian, Artzabalen, Bordatxon, Bentan, Guria tabernan, Santueneko Gure Elkartean, Laukoten, Opil Goxon, Txiribogan, Txirristran eta Zendoian eskura ditzakezue. Txartelean zozketarako zenbakiarekin batera ageri den kodearen bidez, "Tripontzia: burujabetzara bidean" komiki digitala eskuratu ahalko da.

Sexu heziketa tailerra DBH-ko ikasleen

gurasoentzat

Datozen bi ostegunetan, urtarrilaren 16an eta 23an, 17:00-19:00 artean, ikastolako DBH-ren eraikin gorrian. "Maiz, sexualitatearen gaiari heldu nahi diogunean, gure gaztetxoek jada ez dute gurekin hitz egin nahi. Nola has gaitezke sexualitateaz hitz egiten? Zer helarazi nahi diegu? Nola komunikatu? Zer behar dute?"

Izen-ematea

Bertaratu asmo duenak izena eman dezala aurrez sexuaholku@usurbil.eus helbidera, edo 697 919 516 telefono zenbakian.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL

943 361182



JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8

☎ 943 370 008



EUSKARAZ PRAKTIKATU NAHI? LAGUN BERRIAK EGIN NAHI?

100% PAPER BIRZIKLATUA



#PRAKTIKATUETA BIZI

11 AUKERA EUSKARAZ PRAKTIKATU ETA BIZITZeko



USURBILGO Mintzalagun

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat:

Mintzataldeak > Tailerrak > Txangoak

607 609 379 / 943 360 321

www.mintzalagun.blogspot.com

usurbil@aek.eus

Mintzalagunak Gara | Facebook

Sustatzailak



Usurbilgo Udala



Etumeta Euskaltegia



www.noqua.eus

praktikatu



Ione Iruretagoiena: “Askok esaten didate oso mundu zailean sartu naizela”

Modaren munduan murgilduta dago Ione Iruretagoiena Ezeiza zubietarra. Bartzelonan ikasketak amaitu, eta bi urte geroago, marka propioa izateaz gain, desfilea egin du Balentziaga museoan. Tabakaleran du lan egiteko lekua eta erakusle-hoa. NOUA!rekin partekatu ditu bere egunerokotasunari buruzko xehetasunak eta modari lotutako iritzi propioak.

NOUA! Modaren munduan lanean hasi zinela badira pare bat urte eta zure marka propioa daukazu orain.

Ione Iruretagoiena: Marka propioarekin duela urtebete eskas hasi nintzen lanean autonomo moduan. Urtebete lehenago itzuli nintzen Bartzelonatik eta merkatu azterketa bat egiten hasi behar nuen, erosle potentzialak identifikatu eta modaren egoera orokorra aztertu inguru honetan. Bartzelonako modaren egoera gertutik ezagutzen nuen, baina hemengo



Duela gutxi moda desfilea egin du Getariako Balentziaga museoan.

IONE IRURETAGOIENA

“Marka propioarekin duela urtebete eskas hasi nintzen lanean autonomo moduan”

egoera horren sakon aztertu gabe neukan orduan. Nire burua kokatu behar nuen lehendabizi; jendearen eskaerak aztertu. Niregatik izango balitz mila diseinu egingo nituzke, askoz ere gehiago arriskatuko

nintzateke, baina hemengo jendea klasikoagoa da Bartzelonakoa baino. Behin merkatu azterketaren fase hori amaituta, autonomo gisa lanean hasi erabaki nuen nire marka propioarekin: Ione Iruretagoiena.

Zer daukazu salmentan? Nolako produktuak dira?

Tabakaleran egiten dut lan beka batekin, tailerra eta erakusketa gunea dauzkagu bertan. Erreminta ugari eman dizkigute

gure kolekzioak diseinatu eta erakutsi ahal izateko. Orain arte Tabakalerak eskaintzen dizkigun merkatuetan aritu naiz nire produktuak saltzen, neurri eginiko arropen merkatuan. Orain konturatu naiz lan hori pixkanaka egin beharreko zerbait dela eta, erabaki dut bitartean diru sarrerak eskuratzeko kamisetak, sudaderak eta poltsa batzuk saltzea. Desfiletarako egiten ditudan arropen kasuan, tela asko sobratzen zait eta horri bigarren bitzita bat eta berrerabilpen bat emateko modu egokia iruditzen zait. Apalean tela zatiak izaten ditut beti soberan, baina ez dira nahikoa zati handiak izaten arropa diseinatzeko, eta horregatik egiten ditut poltsak. Egia esan, harrera oso ona izan dute, eta bide hori hartu dut azken bolada honetan.

Otsailetik aurrera, “stock-ean” jartzeko bilduma txiki bat egiteko asmoa daukat: galtzak, mono alkondara eta beroki bat, adibidez.

“Txikitatik asko gustatu izan zait kolore gorria”

NOUA! Nola eskura ditzakete erosleek zure diseinuak?

Ione Iruretagoiena: Web orria diseinatzeko eta osatzeko ari naiz orain, baina amaitzeke dago. Normalean jendea telefono bidez jartzen da kontaktuan nirekin, Instagram, Facebook edo email bidez bestela. Nire kontaktu guztiak webgunean bertan jarrita dauzkat interesa duen edonorentzat, ioneiruretagoiena.com helbidean. Behin enkargua eginda, Tabakaleran ematen diet eskatutakoa bezeroei normalean, besteetan nire etxera etortzen dira bila edo nik neuk eskura ematen diet

hitzartutako leku batean.

Gorri kolorea nagusi.

Haurra nintzenetik asko gustatu izan zait kolore gorria, eta Bartzelonan nire lehen bilduma egin behar nuenean gorria izango zela oso argi neukan. Gai baten inguruan bilduma bat sortzea eskatu ziguten, eta nire gaia gorria bera zen, arropa guztiek detaile gorriak izatea nahi nuen. Maisuak esan zidan pauso bat gehiago ematea ere egokia izan zitekeela, eta kolekzio osoa arropa gorri osatua izatea, nire oso estilokoa litzatekeela. Pauso hori

ematera ausartu nintzen azkenean. Orditik, konturatu naiz beti daramadala zerbait gorria soinean nahigabe bada ere, dela poltsa, direla ezpainak, direla zapatak... Sortzerako garaian ere beti tela gorriarekin hasten naiz sortzen eta beti gustatzen zait emaitza. Askotan gainera, diseinua mantenduta kolorea aldatzen badiot ez zait horrenbeste gustatzen. Horregatik, orain arte egin ditudan bilduma guztiak gorriak dira. Hala ere, jendeak nire produktuak ikusita uste du gorriarekin bakarrik egiten dudala lan, edo ez nagoela beste

kolore batzuekin lan egiteko prest eta hori ez da egia. Askotan egin ditut neurri beste kolore batzuetako jantziak, ez daukat arazorik horretan. Niretzat zerbait egin behar dudanean gorrira jotzen dut beti, baina bakoitzaren behar eta gustuetara ere egokitzen naiz inolako arazorik gabe. Kolore gorriak emakumeon indarra sinbolizatzen du nire ustez, eta esanahi positiboak ditu. Horregatik detaileren bat baino ez bada ere, saiatzeko naiz zerbait gorria jartzen, baina ez da inondik inora ere derrigorrezko elementu bat.

“Lehen pasarela Bartzelonan egin nuen, gradu amaierako kolekzioa erakusteko”

NOAUA! Look berriak erakusteko hainbat pasarelatan izan zara.

Ione Iruretagoiena: Bai, lehen pasarela Bartzelonan bertan egin nuen gradu amaierako bilduma erakusteko. Bartzelonako 080n aurkeztu genuen. Amets bat betetzea izan zen niretzat, lau urteko lanaren fruitua. Nik ez nekien josten unibertsitate ikasketak egiten hasi nintzenean, inoiz ez nuen horrelako ezer egin. Lehen josketako klasean papera josi genuen, eta lau urte beranduago bilduma oso bat egiteko gai izan nintzen. Lehen bilduma horri maitasun berezia diot, nire umea izango balitz bezala da, eta ez dut jantzi bat bera ere saldu. Egiten horrenbeste kostatutako jantziak pasarela batean ikusteak oso zoriontsu egin ninduen. Aurten Balentziaga museoaren pasarelan ere izan da nire bilduma. Munduan ezaguna da Balentziaga, eta niretzat plazer handia izan da bertan bilduma erakusteko aukera izatea.

Zein diseinatzaile dituzue erreferentziatzat?

Egia esan erreferentzia askorik gabeko diseinatzailea naiz ni. Diseinatzaile askok erreferentzia mordoa izaten dituzte bildumak edo jantziak egiterako garaian, baina ni nahiko modu librean aritzen naiz. Jakina,



Donostiako Tabakalera du lan egiteko lekua eta erakusleihoa.

IONE IRURETAGOIENA

“Egia esan erreferentzia askorik gabeko diseinatzailea naiz ni”

diseinatzaile askoren jantzi batzuk asko gustatzen zaizkit; adibidez, Alexander McQueen-en indarra eta ausardia asko gustatzen zaizkit, baina ez naiz horretan bakarrik oinarritzen. Balentziaga askoz ere tradizionalagoa da, baina haren dotoretzia ere oso gustoko dut. Hala ere, ez ditut erreferentziatzat hartzen, edo ez dut beraien lana gehiegi ere jarraitzen. Momentuan burura datozkidan

ideiekin egiten dut lan, ez naiz inspirazio bila aritzen beste diseinatzaileen jantzietan.

Bartzelonan egin zenituen ikasketak, baina hona itzuli zara modan lan egiteko. Bide zaila ez al duzu aukeratu?

Nik oso argi neukan etxera itzuli nahi nuela. Oso pertsona herritarra naiz, Zubietako giroa gustatzen zait, herri txikien xarma hori. Bartzelonan ere oso gustora egon naiz, baina beste mundu bat da. Nik uste, gogoz baldin bazaude, edozein lekutan atera dezakezula lana aurrera. Agian Bartzelonan lehenago murgilduko nintzen mundu horretan, diseinatzaileak behar

dituzten enpresa asko baitaude. Autonomo moduan hasi nahi nuen lanean nire marka propioarekin eta hasiera nahiko zaila izan bada ere, nire lekua egiten ari naiz pixkanaka. Bezero gehiago izango nituzke han, baina nik uste Internetarekin gaur egun edonora iritsi gaitzkeela. Merkatua nahiko irekia da zentzu horretan.

Askok esaten didate oso mundu zailan sartu naizela, baina nik esaten diet han edo hemen lor dezakezula zure lekua. Hasi nintzenean neukanetik gaur arte lortu dudana izugarria izan da, eta pixkanaka jarraituko dugu aurrera.

Bartzelonan ikasi zuen moda diseinua

NOAUA! Modarekiko maitasun hori betidanik izan duzu?

Ione Iruretagoiena: Txikitatik izan dut modarekiko lotura hori, baina inoiz ez naiz jostuna izan. Egoskorkeriagatik edo ez dakit zergatik, baina LH1 edo LH2n nengoenetik argi izan dut diseinatzaile izan

nahi nuela. Ikasketak egiten hasi baino urtebete lehenagora arte ez nekien unibertsitate ikasketak zeudenik ere arlo honetan. Josketa eta patroiak egiten ikasteko aukera bazegoela banekien, baina ez espresuki diseinatzaile izateko. Amak Zarautzen egiten

du lan eta bezero batek esan zion behin lagun bat Bartzelonan Moda Diseinua ikasten ari zela, eta hortik hasi ginen ikertzen. Ordura arte ez nuen ikasketengatik kanpora joan nahi, hemen geratu nahi zue-na gutxi horietakoa nintzen. Gertuen Bartzelona, Madril

eta Galiziako unibertsitateek eskaintzen dute gradu hau, eta Bartzelonara joatea erabaki nuen.

Ikasketak hautatzeko bide hori beti izan dut oso argi, baina inoiz ez naiz izan amonarekin josten ikasi duen haur hori.

Protestatzea ez dela delitua baina erraustegia bai, aldarrikatu dute

Protesta sozialak ez direla delitua baina Zubietako erraustegia bai oihukatuz, 2018ko irailean errausketaren zero gunera eginiko martxan parte hartu zuten zenbait lagunak aurkako epaiketa salatu zuten elkarretaratze bidez urtarrilaren 9an, Donostiako Egiako auzitegi atarian. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deitu zuen hitzordua, martxalariei babes adierazi eta aipatu moduan, protesta soziala ezin dela kriminalizatu salatzeke.

“Guk argi dugu: erraustegirik ez!” zioten kartelak eskutan, auzitegi atarian mobilizatu ziren lehenik, eta aurreko plazari itzuliak emanez aritu ziren gero. Etengabeokoa izan ziren erraustegiaren aurkako oihuak, baita protestatzea ez dela delitua, delitua erraustegia bera dela ziotenak.

Martxan parte hartzeagatik

Abenduaren 4an abiatu zuten, 2018ko irailean Zubietako errausketaren zero gunera, erraustegiaren aurka antolatu zen martxan parte hartu zuten lau lagunak aurkako epaiketa. Mendi martxa hartan parte hartu zuten ia 2.000 lagunak aurka oldartu zen Ertzaintza egun hartan. Indarra baliatuz, guztionak diren mendi bidetik bota



2018ko martxa batean parte hartu zuten zenbait lagunak aurkako epaiketa salatu zuten elkarretaratze bidez urtarrilaren 9an, Donostiako Egiako auzitegi atarian.

ANTOLATZAILEAK

“2018ko iraileko martxan parte hartu zuten zenbait manifestari epaituta, jendea beldurtu eta protestatzeari uztea sustatu nahi dutela dio Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak”

zituzten modu baketsuan mobilizatzeko ari ziren martxalariak; tartean zaurituak izan ziren. Eta Ertzaintzak salaketa aurkeztu zuen auziperatuak dauden lau lagunon aurka. Salaketa hartatik dator duela hilabete hasitako epaiketa.

“Jendea beldurtu nahi dute, protestatzeari uzteko”

2018ko irailean Zubietako errausketaren zero gunera eginiko martxan parte hartu zuten zenbait manifestari epaituta, jendea beldurtu eta protestatzeari uztea sustatu nahi dutela adierazi zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, mobilizazioaren amaieran.

Mugimenduko ordezkariak azaldu zuten, erraustegiaren aurkako martxan parte hartu izanagatik isunak jasotzeko arriskua dute epaituak izan diren manifestariak. “Erraustegiaren Aurkako Mugimendutik baloratzen genuen salto

berri bat zela hau erraustegiaren aurkako borrokan. Orain piztear dauden honetan, jendea beldurtu nahi dute, jada behingoz protestatzeari uzteko”. Argi adierazi zuten, “mugimendutik baloratzen genuen elkar lagundu behar gara eta ez dela inor bakarrik utzi behar”.

Urte amaieran Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioaren asanbladan iragarri zuten, martxoaren 3an jarri nahi dute martxan erraustegia eta eremu horretako gainerako azpiegiturak. Egun horri begira, datozen deialdiei adi egotea eskatu zuten.

“Ur-lurrin” gehiago eta zarata handiagoa erraustegitik

Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak iragarri duenez, abenduko lehen hamabostaldian egin zuten moduan, erraustegiko ur-lurrinako zirkuituan bigarren probaldi bat egitekoak dira egunotan. Honenbestez, erraustegia ur-lurrina isurtzen ikusiko dugu

eta joan den hilabete bakoitzeko zarata handiagoa entzungo omen dugu, zirkuituaren beraren garbiketa eta probaldia azpiegiturako bi lineetan aldi berean egingo delako.

GHK-k ohartarazi duenez, erraustegia guztiz martxan egotean, hondakinen erraus-

teak ura lurrunean bilakatuko omen du eta horrek argindarra sorraraziko duen generadorearen turbina mugiaraziko omen du. Gogoan izan, martxoaren 3an jarri nahi dute martxan Zubietako erraustegia eta inguruko gainerako azpiegiturak. Noiznahi ikusi daiteke

erraustegia ke zutabeez inguraturua.

GurasOS-en deia

Sare sozialen bidez adi egoteko deia zabaldu du GurasOSek. “Hurrengo egunetan albiste garrantzitsuak datoz”, iragarri dute.



Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Gabonetako opariak edo detaileak

Gabonak pasata, urte berria hasita, Erregeak joanda... Donostiako danborradaz hitz egiteko garaia izango da orain. Eta gero Santa Agedaz, San Balentin egunaz, inauteriez... Urtero bezala, egutegia eta agenda eginak daude urtea hasi orduko.

Bada ez, ez noa agenda setting horretan sartzera. Korrika hurrengoaren edo datorrenaren peskizan jartzeko partez, pasatakoari begira jarriko naiz, Gabonei, Olentzerori, Mari Domingiri eta Errege Magoei.

Makina bat opari jasoko zizutzen etxeko txikiak eta hain txikiak ez direnek: jostailuak, pijama, baloia, puzzlea, mahai-jolasak, bizikleta, mugikorra, aterkia, azpiko arropa, goxokiak, panpinak... eta ez dakit zenbat gauza gehiago. Zenbat luzatu ote daitekeen zerrenda!

Erabiltzeko eta ukitzeko oparri zerrenda amaigabe horretatik haratago, ordea, aurten beste "opari" batek eman dit atentzioa, Stockholm-ko haurrek Gabonetan jasotzen dutenak: garraio publikoa doan dute Gabonetan. SL garraio konpainiak Gabonetan haur eta gaztetxoei ez die bidaiarik kobratzen, doan bidaiatu dezakete alde batetik bestera autobusez, tranbiaz, metroz eta barkuz. Ez al da opari ona? Haur eta gaztetxoentzat ez ezik, haien gurasoentzat ere



Stockholmeko museo bateko piknik gunean jendea etxetik eramandako janaria jaten, tabernara edo jatetxera joan beharrik gabe.

AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

"Stockholmen museo asko doan dira, bereziki umeentzat eta familientzat direnak. Horrek familiak museoetara joatea bultzatzen du"

bai, gainera. Horrelako erregalua jasotzeak gustura uzten ditu gurasoak eta haien poltsikoak. Haur eta gazteak ere konturatzen dira egun horietan txartelik gabe bidaiatu dezaketela. Ez da zehazki Olentzeroren, Mari Domingiren, Errege Magoen edo Bizarzuriren oparia, ez da gutunean eskatu dutena, ez da magia horren barruan kokatzen den erregalua, baina baloratze-ko modukoa denik ez didazue ukatuko, ezta? Dena opari zerrenda materiala izateko par-

tez, beste era batera baloratu daitekeen erregalua bada, ezta? Garraibideen konpainiaren detailea, aizue.

Horrelako detaile gehiago ere badituzte Stockholm. Esate baterako, museo asko doan dira, bereziki umeentzat eta familientzat direnak. Horrek familiak museoetara joatea bultzatzen du, haurrak museoetara joatera ohitzea eta kultura hori sortzea.

Antzematen da, gainera, umeentzako museoak umeentzat pentsatuta eta prestatuta daudela. Hona hemen hori erakusten duten bi detaile:

1- Museoetako gauzak ukitzeko, erabiltzeko, gainean jartzeko, azpitik pasatzeko, probatzeko, irakurtzeko, ikusteko... dira. Txikienez botoiak behean daude, ondo ikusteko igotzeko koxkak jarrita daude -gurasoen besoetan egon beharrik gabe-. Neurria egindakoa, hitz batean

esateko.

2- Museo barruan piknik guneak daude. Alegia, "hemen ezin da jan" kartelak ikusten diren bezalaxe ikusten dira "jateko gunea" edo "piknik gunea" kartelak ere. Eta gune horietan mahai eta aulki mordo bat, arraskak eta mikro-uhin labeak daude. Alegia, ez dagoela tabernara edo jatetxera joan beharrik. Norberak eraman dezake jatekoa etxetik eta lasai ederrean jan, inongo konplexurik gabe. Familien neurria egindakoa, hitz batean laburtuta.

Garraibideen konpainiak, udalek, instituzioek... egindakoa eskaintzak dira. Ez zehazki Gabonetako opariak, baina detaile esanguratsuek dira, neurri zehatzak eta garbiak. Eta horiek ondorio batzuk sortzen dituzte, ohitura eta kultura jakin batzuk. Umeak doan bidaiatu baldin badezakete autobusean, metroan, tranbian edo barkuan, horrek norbere kotxea hartzeko partez garraio publikoa hautatzea bultzatzen du. Museoen kasuan, erraztasunak jartzeak (sarrera doan, jateko guneak eta abar) museoetara maizago, gogotsuago eta pezerarik gabe joateko aukera ematen du. Seguraski, beste leku batzuetan ere gustura hartuko genituzke horrelako detaileak, neurriak, inbertsioak, politikak edo nahi den bezala deitutako opariak.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Patxi
Patri *enea*
jatekidea
bazkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera
943 362725 · 688 690 361

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Otar-Goxo
Elkideak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Entitateetara hedatuko den bigarren Euskaraldi urtean gara

Oraingoan Ahobizi eta Belarriprestekin batera, denetariko entitateak (erakundeak, eragileak, elkar-teak, taldeak...) ekimen honetan parte hartzea sustatuko da Euskaraldiaren bigarren edizio honetarako sortuko den "ariguneen" (euskaraz aritzeko entitateetako gune babestuak) figura berriaren bidez. Usurbilen ere dagoeneko entitateen parte hartzea sustatzeko lanean da herritarren batzordea. Izen ematea zabalik da jada. As-teartean egitekoa zuen urteko lehen bilera, Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den herritarren batzordeak.

2020ko Euskaraldia

- Noiz: azaroaren 20tik abenduaren 4ra.
- Iraupena: 15 egun.
- Parte hartzeko moduak:
 - Norbanakoek: Ahobizi (lehen hitza euskaraz) edo Belarriprest (Ahobizien hizketari jarraipena ematea) gisa.
 - Entitateek: Ariguneen bidez.
- Izen ematea:
 - Usurbilek herri bezala urrian eman zuen izena.
 - Entitateentzat izen ematea zabalik dago.
 - Herritarrentzat 2020ko irailan.



Usurbilen ere dagoeneko entitateen parte hartzea sustatzeko lanean da herritarren batzordea.

EUSKARALDIA

"Ahobizi eta Belarriprestekin batera, denetariko entitateen parte hartzea sustatuko da aurtengo Euskaraldian"

- Antolaketa egitura berria lanean da:
 - Herritarren batzorde ireki bat.
 - Lau lan talde ireki:
 - 1-Entitateekin lan egingo duen taldea: entitateei Euskaraldia aurkeztu, parte hartzea gonbidatu eta ekimena aurrera eramateko laguntza eskaini edota herriko entitateen mapa osatuko dute.
 - 2-Ekintzen lan taldea: Euskaraldia herriratzeko ekimenak

- antolatuko ditu; tartean, datoren Euskararen Eguneakoak.
- 3-Komunikazio lan taldea: webgunearen eta sare sozialen kudeaketa, albisteak sortzea, antolatutako ekintzen berri emango du...
- 4-Koordinazio lan taldea: kontu ekonomikoak eta barne harremanak kudeatuko ditu (Gipuzkoako foroetan parte hartu...).
- Antolaketa lanetan parte hartzea: lantalderen batean parte hartu edo une puntualetan laguntzeko aukera.
- Informazio gehiago eta antolaketan parte hartzeko izen ematea:
 - usurbil.euskaraldia.eus
 - usurbil@euskaraldia.eus
 - 688 807 336

Usurbil F.T.-ren benjaminak txapelkunorde

Abenduaren 23tik 30era, Lasarte-Orian ospaturiko Gabonetako Areto Futbol Txapelketan parte hartu zuten Usurbil F.T.-ko benjamin jokalariek. Bigarren amaitu zuten txapelketa. Zorionak!



Lasarte-Oriako areto futbol txapelketan bikain aritu ziren.

Behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleentzako diru-laguntza deialdia

Udal diru-laguntza lerro anitzetara eskabideak aurkezteko epea zabalik da urtarrilaren 8az geroztik; gizarte ongizatea, ingurumena, kirola, kultura, nekazaritza eta abeltzaintza arloetako egitasmoak gauzatzeko, deserrotze eta baztertze arriskuan diren pertsonen senideentzako, igogailuak jartzeko, hutsik den merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abiatuta alokairua ordaintzen laguntzeko, edota Hasiz Hazi beka deialdiaren bidez, Kabiene Elkarlan Gunean urtebetez ekintzaileak bere proiektua garatzeko.

Lerroekin batera, beste laguntza deialdi bat ere abiatu du Udalak; behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleei zuzendurikoa. Deialdi honen bidez, "behar ekonomiko berezia duten herritarrei euskaltegiko matrikula kostua aurreratuko zaie". Laguntza honen onuradunak izan daitezke, "Usurbilen erroldatuta egonik, behar ekonomiko berezia duten euskara ikasleak. Ikastaro hauek 2019ko uztailetik 2020ko ekainaren 30 bitartean egindakoak izango dira. Dirulaguntza hauetarako eskaerak Euskaltegiko matrikula egiten denean aurkeztu beharko dira. Dirulaguntzen zuriketa, berriz, 2020ko uztailetik 6tik 10era bitartean egingo da". Laguntza hau jaso ahal izateko, Usurbilen erroldatua egon beharko da, eta ikastaro osoko klaseen %80ko asistentzia egiaztatu beharko du. Diru-laguntza guztioi buruzko informazio gehiago: urtarrilaren 7 eta 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udal iragarkien taulan edo usurbil.eus atarian.

Aner Calvo Unanue, DMT Kopako hasiberrien txapelduna

Sei urterekin DMT Moto1 eskolan motorrean ibiltzen ikasten hasi duela urtebete eta jada bere lehen garaipena eskuratu du Aner Calvo Unanue gaztetxo usurbildarrak. DMT Kopako hasiberrien txapelketa irabazi zuen urte amaieran.

Bere senideek NOAUA!ri azaldu diotenez, “herrian badugu motozale ugari, eta txikienetarikoa izango da Aner Calvo Unanue. Duela urtebete eskas, 6 urterekin, hasi zen DMT Moto1 eskolan motorrean gainean nola ibili ikasten. Loiolako kanpa batean, minimoto txikiekin entrenatzen du astean bitan, bere adineko ume gehiagorekin batera”.

Eskolako klaseez gain, DMT Kopan parte hasi zen iaz. “Olaberrian eta Azpeitian izan ziren iazko lasterketak eta hauetako zenbait oso lehiatuak izan ziren. Urtearen



Duela urtebete eskas hasi zen DMT Moto1 eskolan motorrean gainean nola ibili ikasten.

bukaeran DMT Kopako hasiberrien txapeldun izan dugu Aner”, berri eman diote Anerreren etxeok aldizkari honi.

“Ostape” partzea, aitona omenez

NOAUA!ra helarazi duten argazkian ikus dezakezuen moduan, profesionalen moduan

janzten da Aner. “Abiadura handitan ibiltzeko segurtasun elementu guztiak eramaten dituzte: kaskoa, eskularruak, larruzko jantzia, botak... profesionalen modura. Hauek bezala, bere zenbaki propioa ere badauka honez gero, kasu honetan 48-a aukeratu zuen gainean eramateko. Anerre bere aitona omenez, “Ostape”, partxe bat ere badarama jantzian”, berri eman digute.

Urte amaierako txapelketa irabazita, 2020ko hitzorduei begira da Aner. “Martxoan hasita, bost lasterketa dituzte programatuta. Ea zer moduz doakion Anerri 2020an kategoria berrietan eta ea koparen bat ekartzen duen etxera bueltan”, desio dute. “Polini” izeneko motorrarekin ibiltzen da Aner, baina aldaketarik izango du denboraldi berrian; “motor berriarekin ere arituko da txapelketan parte hartzen”.

Miriam Arrillaga Beloki omenduko duen pilota jaialdia Aginagan

Zubietak egin bezala, Aginagako herriak Miriam Arrillaga Beloki Emakume Master Cup-eko 4. t'erdiko txapelduna omenduko du urtarrilaren 25ean.

Antxomolantxa Elkarrekin eta Usurbilgo Udalak 18:00etan Ariztitxo frontoian antolatutako pilotajaialdia erdian izango da. Arrillagak berak parte hartuko du neurketetako batean, bestean Aitor Aranguren aginagarrak:

■ Patri Espinar-Miriam Arrillaga / Eneritz Arrieta-Maider Mendizabal.

■ Binakako Promozio Txapelketa 2020: Arteaga II-Urretabiz-



Sarrerak Bordatxon eta Arraten daude salgai.

kaia II / Peña II-Aranguren.

Sarrerak salgai

Pilota jaialdirako txartelak aurrez eskuratu ahalko dira Bordatxon eta Arraten edo entradasfronton.com atarian. Edo egunean bertan Aginagako frontoian. Prezioak: 10 euro (16 urtetik gorakoek), 5 euro (10-15 urte artekoek), doan (0-9 urte artekoek).

Estropadak erriotan

Igandean (hilak 19) goizeko 10:30ean hasita, Aulki Mugikorrek Distantzia Luzeko Gipuzkoako Txapelketa jokatu du erriotan Aginagatik Oriora. Infantil eta kadeteak 4.000 metroko estropadan lehiatu dira Sarikolatik Oriora. Jubenil eta absolutu mailakoek 6.000 metroko distantziko proban parte hartuko dute, Mapiletik Oriora. Otsailaren 22an ospatuko da bestalde, Oriaren XXVI. Traineru Jaitsiera.



Igande honetan, goizeko 10:30ean.

Futbol partidak

Urtarrilak 18, larunbata

■ 10:00 Alebin mutilak: Udarregi 6B-Udarregi 6A Udarregi 5A-Urnieta

■ 11:15 Infantil neskek: Udarregi Usurbil F.T.-San Ignacio

■ 12:30 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Billabona

Urtarrilak 19, igandea

■ 09:30 Alebinak 2008: Usurbil F.T.-Tolosa CF

Eskubalo partidak

Urtarrilak 18, larunbata

Eskola Kirola

■ 9:30 Alebin neskek: Udarregi 5A-Udarregi 6D

Udarregi 6B-Udarregi 5B

■ 11:00 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Leizaran Txuria

■ 12:30 Infantil mutilak, Diputazioko Torneo: Udarregi A Usurbil-Aloña Mendi K.E.

Usurbil K.E.

■ 16:45 Kadete neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Egia I

■ 18:30 Jubenil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Leizaran Lanbroa

Urtarrilak 19, igandea

■ 11:45 Errendimendu mailako alebin mutilak: Usurbil K.E.-Ereintza

Udane Makazaga

Estella, saritua

Brontzezko domina irabazi du Euskadiko kadete nesken eskubalo selekzioak, Espainiako Selektzio txapelketan. Selektzioan zen besteak beste, Zarauzko Eskubalo Taldean jokatzeko ari den Udane Makazaga Estella usurbildarra. Zorionak!



Zarauzko Eskubalo Taldeko kide da Udane Makazaga.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai; 2 logela, egongela, sukalde handia, 2 balkoi, dena kanpo aldera begira. Komuna duela guxi berritua. 56m². Lokala 22m², garaje bezala eta sapai txiki bat trastelekutzat. Interesatuak 675 007 422.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukalde, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kalefakzioa. Iggogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Agnagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrik doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrik bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berriena. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxe baten bila gabiltza alokairuan edo salmentan Usurbilen. 688 714 317. Deitu astean zehar 16:30etik aurrera edo asteburuetan.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

MOTORRA

Salmenta,
garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramuntu kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrik emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta asegurueterako kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetera, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrik emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrik emateko prest egongo bazina, bidali mezua: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Interna moduan lan bila nabil. esperientzia_asko661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitatea osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz.

Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, garbiketan, orduka edo externa bezala. 633 148 710

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil,

Heriotzak

Angel Matxain Alzaga

77 urterekin hil zen abenduaren 26an, Usurbilen

Andres Iribar Ikutza

81 urterekin hil zen abenduaren 22an, Usurbilen



Anttoni Arruti Aburuza

86 urterekin hil zen abenduaren 19an Usurbilen



Felicidad Rubio Crespo

91 urterekin hil zen urtarrilaren 11n Usurbilen



umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketari. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketari lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsaldez zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest.

Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz.

Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketari, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edo

kitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketari. 671277904

BESTELAKOAK

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH Tean ikasten ari nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Urtarrilak 16- Urtarrilak 26

Osteguna 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 26 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urtarrila

16 osteguna

- **Joxan Artze gogoan.** Idatzizko eskaintzak idatziz egiteko aukera, udal liburutegian.

17 ostirala

- **Danborrak ikastetxeetan.** Ikus 12 or.
- **Joxan Artze gogoan.** Idatzizko eskaintzak idatziz egiteko aukera udal liburutegian.
- **"La violencia sexual en el neoliberalismo: estrategias feministas para combatirla".** 19:00etan, hitzaldia Sutegin.

19 igandea

- **Xua eta haur motxiladunen aldeko ekitaldia.** 11:30ean Donostiako Atano pilotalekuan.
- **Xua gurasoekin etxeratzeko elkarretaratze berezia.** 19:00etan Eguzkitzako errotondan.

Xua eta gainerako haur motxiladunen aldeko ekitaldia

Xuak hiru urte beteko ditu igande honetan. Valentziako Picassenteko espetxean bizi diren Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga gurasoengandik bereiziko duten eguna ere izango da. Xua eta guraso bat edo biak espetxean dituzten gainerako haur motxiladunen (105 guztira) aldeko "Motxilak Gora!" ekitaldia antolatu du Sarek Porrotxekin Donostian igande honetarako.



Porrotx pailazoak hartuko du parte igande honetako ekitaldian.

Urtarrilak 19 igandea

- Ordua: 11:30.
- Non: Donostiako Atano pilotalekua.
- Antolatzailea: Sare.

Sexu-biolentziari buruzko hitzaldia, Amelia Tiganusen eskutik

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak "La violencia sexual en el neoliberalismo: estrategias feministas para combatirla" izeneko hitzaldia antolatu du. Amelia Tiganus izango da hizlaria eta gaztelaraz arituko da. Ostiral honetan, 19:00etatik aurrera, Sutegin.

"Espainiako prostituzio etxeetan bost urtez salerosketa-trafikoa eta sexu-esplotazioa pairatu ostean, bere bizitza borroka feministari eman dionaren testigantza jasoko dugu", Udalak ohar bidez jakinarazi duenez.

- Urtarrilak 17 ostirala, 19:00etan Sutegin.

Datozenak

Ikastaro ugari KzGunean

- Urtarrilak 21, 16:00-18:00 "Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi".
 - Urtarrilak 28, 18:00-20:00 "Zure bidaia planifikatu".
 - Urtarrilak 30, 16:00-18:00 "WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean".
- Informazio gehiagorako: Nagusia, 37 943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Eider Rodriguezen 'Bihotz handiegia', Sutegin hizpide

Urtarrilaren 22an 19:00etan Sutegi udal liburutegian, liburutegiak berak eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatuta. Eider Rodriguezen "Bihotz handiegia" ipuin-bilduma aztertuko da ikuspegi feministatik, Kattalin Miner kazetari eta idazleak bideratuko duen saioan. Liburuak eskuragarri dituzue Sutegin.



Argazkian, Eider Rodriguez idazlea. Kattalin Minerrek zuzenduko du saioa.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ANTXETA

taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44



ADA

-MASAJEAK-

633 36 22 33

erreka-txiki 1, USURBIL

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 18tik maiatzak 3ra
TXOTX-GARAI

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com

IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2020, primerako
sagardoekin
943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



943 37 39 95

Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10



Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako satarra

Tel: 943 365 031

Santuenea



URTARRILAK 18
18:00h.



Aurre- danborrada

Larramendi Ikastetxea



urbil.es